



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Udal Kultur Etxea (Basauri)

#### Jardueren Zuzendari lanpostu bat (1) oposizio-lehiaketa bidez txanda librean betetzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Basauriko Udal Kultur-Etxeko lehendakariak, María Larrinaga Artetxek, 2023ko urtarrilaren 12an, Lehendakaritzaren Ebazpen hau eman du:

Amaitu da Jardueren zuzendari-plaza baterako hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea. Deialdi horren oinarri espezifikoak 2022ko ekainaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren (121. zenbakia). Lehendakari honek onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen du:

#### Onartutako izangaien behin-behineko zerrenda

Lehen Abizena	Bigarren Abizena	Izena
GARAIZABAL	ARMESTO	AMAGOIA
LÓPEZ	ASENSIO	ANA
MARTÍN	LARRINAGA	JULEN
NIEVA	ECHEBARRIA	FERNANDO
TORRE	BILBAO	SAIOA

Ez da argitaratu baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda, aurkeztutako eskabide guztiak onartu direlako.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Social Antzokiaren web orrian ([socialantzokia.eus](http://socialantzokia.eus)) argitaratzea, eta hautagaiei 10 egun balioduneko epea ematea, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hutsegiteak edo agiriak baztertzearen, ez egitearen eta zuzentzearen aurka erreklamatzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epe hori igarotakoan, behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Halakorik balego, baie-tsi edo ezetsi egingo dira, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri batean.

Izangai onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen dituztenik. Aurkeztutako datuak edo agiriak egiaztatu ondoren hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez dituela ikusten bada, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesatuari entzun ondoren lehendakaritzak bidezko ebazpena eman dezan.

Basaurin, 2023ko urtarrilaren 18an.—Udal Kultur-Etxeko Lehendakaria, María Larrinaga Artetxe